

HBren jokabidea aintzat hartu gabe ihardungo dutela diote PSN eta EAk

Atzo izan zuten lehen bilera ofiziala gobernu egitaraua osatzeko

Urralburu Nafarroako lehendakariaren mantenduko lukeen Gobernuaren egitaraua zehazteko lehen bilera ofiziala izan zuten atzo PSN-PSOE eta EAko ordezkariak. Elkarrizketan ez zen HBrekin negoziatzea aintzat hartu, bi alderdietako bozeramaleek aditzera eman zuten.

ANA UNANUE / IRUÑA

Eusko Alkartasuna eta PSN-PSOEko ordezkariak ordu t'erdiz egon ziren bilduta atzo arratsaldean, Iruñan hurrengo Nafarroako Gobernuaren egitasmoa zehazteko egindako lehen elkarrizketa ofizialean. Aurretik ezagunak ziren jarrerei nolabaiteko ofizialtasuna eman baino ez zen egin bileran, PSOEko Aladino Colinek eta Eusko Alkartasunako Fermin Ziarritzek esandakoaren arabera.

Sozialisten ordezkari gisa Jose Antonio Asiain, Aladino Colin, Federico Tajadura eta Manuel Lopez Mazuelas aritu ziren. EAren aldetik berriz Iñaki Cabases, Fermin Ziarritz eta Estebe Petrizan parlamentariak eta Pello Irujo lehendakaria aritu ziren.

Colinek bileraren ostean azaldu zuenez, «lehen kontaktu honen helburua bi alderdiok gobernu egitaraua elkarrekin mamitzeko dugun nahia plazaratzea izan da. Gobernu egitarau horrek hogeitalau boto jaso ditzaken lehendakaria aurkezteko aukera emango digu». Aldez aurretik ezaguna zena egiaztatu zen beraz, jakinmin biziena pizten duenaz min-



Ezkerretik, Aragon (PSN-PSOE) eta Ziaurriz (EA) asteleheneko bilkuran. JOXE

tzatu gabe ordea, edo horren berri eman gabe bederen.

Colinek aipaturiko hogeitalau botoak —ziurtatu gabe egoteaz gain, IUk abstenitu egingo dela esan bait du—, ez dira aski izango Urralbururentzat, Herri Batasunak bere aurkako botoa ematen baldin badu. Eta Zabaletak «negozialetarik gabe, gure aldeko botorik edota abstentziorik ez dutela jasoko» ziurtatu duen arren, PSN eta EAk erabat baztertu zuten atzo negoziaketa hipotetiko hori. Ziaurrizen esanetan, «ez dugu aintzat hartu HBrekin negoziatzeko posibilitatea» eta «ez dugu kanpoko baldintzaketarik onartuko». Iritzi berdintsua azaldu zuen Colinek, «HBk egingo duena negoziaketa mahai honen gainean ez dela egongo» esanez.

LAU URTEAKO EGITASMOA

Ezer gutxi zehaztu zuten negoziatzen ari diren egitarauari buruz. Colinek «Nafarroak datozen lau urteotarako behar duen egitasmoa izango da», esan zuen eta Ziaurrizek «bata bestea ideologikoki baldintzatzen ez gara ibiliko, baizik eta alternatiba landuko dugu». Aipatu zen puntu zehatz bakarra EAk Euskaren Legearen aldaketa eskatuko dela izan zen.

Hurrengo bilerarako ez zuten datarik jarri. Alderdi bakoitzak bere txostenak prestatuko ditu eta besteari ezagutaraziko dizkio hurrengo bilera baino lehen.

Aurrerantzean Iñaki Cabases izango da EAren bozeramalea eta Aladino Colin PSOEena.

Zazpi urteko gartzela eskatu dute Irazola eta Berrozcentzat

PARISE

Juan Irazola Mendikute eta Tomas Berroz Larburu epaitu zituen atzo Pariseko Epaitegi Korrekzionalak, «gaizkile elkarteko kide» izatearen akusaziopean. Bost urteko gartzela zigorra eskatu zuen Irene Stoller fiskalak Irazolarentzat eta bi Berrozcentzat. Ignacio Orueta ere sumario berean dago inkulpatuta, baina leku ezezagunean dago.

Estatu frantziarrean egoteko debekua ere eskatu zuen fiskalak hiru epaituentzat, eta gainera, zehaztu ez zuen isuna ordaintzea eta atxilotze agindua Oruetaen kontra. Azken honen kontra ez dago «gaizkile elkarteko kide» izatearen akusaziorik, baina Estatu frantziarrean irregularki egotea eta armak edukitzea leporatzen diote.

Poliziak Irazolari aurkitu zizkion bi eskutitz «funtsezko» frogatzat aurkeztu zituen Ministeri-

tza Publikoak. Zenbait lekuren deskripzioa egiten da eskutitz horretan, horien artean Bilbo-Abanto geltokiko komisaldegikoa edo Basauriko koartelekoa, fiskalak berak epaiketari irakurri zuenez. Akusazioak ETAko «lortura» izatea leporatu zion Irazola Mendikuteri. Atentatuak egin ahal izateko informazioa igortzen zuela esan zuen. Irazolak ukatu egin zuen ETAkoa zenik.

1989ko apirilean atxilotu zuten Irazola Donibane Lohizunen, eta behinbehineko gartzelan egon da ordudunik. Berroz eta Orueta aske egon dira baina kontrol judizialaren pean.

Fiskalak esan zuenez, Espainiar estatuko poliziak emandako informazioaren arabera, Berrozek 'Donosti' komandoari eman zion laguntza eta Iparraldera aldegin zuen desartikulatu zutenean. Akusatuak esan zuenez, deklarazio horiek torturapean lortu ziren.

Hauteskunde sindikalak egitea du helburu Erne sindikatuak

BILBO

Joseba Gomez, Ertzaintzaren Erne sindikatuko idazkari nagusiak adierazi duenez, bihar edo etzi polizi legea onartu eta gero Polizia Autonomoan berehala hauteskunde sindikalak egitea izango da sindikatu honen helburuetako bat.

Joseba Gomezen iritziz, «Ertzaintzan hauteskunde sindikalak aldarrikatzen baldin badira ordezkari sindikalak libreki hautatzeko da. Ertzaintzako afiliazioa handia denez, langileei behar beharrezkoa zaie biltzea, euren interesak defendatu eta ezar daizkiekeen disziplina-zigor ugariei aurre egiteko».

«Ernek —jarraitu du Gomezek— beti aldarrikatu du pertsona batek boto bat sistema, boto sekretua, librea, pertsonala eta zuzena izanik, gainerako lan esparru guztietan bezala».

Bide horretan, Joseba Gomezek adierazi du sindikatu honek ez duela bere afiliazioa Barne Sailean aurkeztu «barrukotasun eta askatasun sindikalerako eskubideei eraso larria egitea izango litzatekeelako. Askatasun sindikalaren arabera pertsona bakoitza libre da afiliatu nahi duen ala ez erabakitzeko, Konstituzioan adierazten den bezala».



Joseba Gomez.

KEPA

Bestetik, Erneko idazkari nagusiak aitortu egin du bere sindikatuak sektorean gehiengoa badu «ezarpen maila handiengatik eta kolektiboak dituen kezkenatik» dela. «Gure iritziz —dio— Ertzaintzako langileak ezin dira laborategiko animalien modura erabili estrategia sindikalen arabera».

«Adierazgarria da —azpimaratu du— Ertzaintzako 1991ko lan baldintzak finkatzeko egiten ari diren negoziaketetan, negoziazioarako mahaiaren osaketan bertan, erabat ertzainez osaturiko sindikatu bakarra Erne izatea».

EAJ eta PPk gobernu taldea osatuko dute Laudioko Udalean

LAUDIO

Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Partido Popularrak akordioa lortu dute Laudioko Udalean elkarrekin gobernatzeko. Gainontzeko alderdiek, Herri Batasunak ezik, komisio desberdinetan hartuko dute parte, Toño Aiz alkate berri jeltzaleak atzo aditzera eman zuenez.

«Posible da EA eta EEK legealdian zehar zinegotziren bat lortzea, Laudio politikatik kanpo gobernatzeko egin dugu lan eta udal erantzukizunaren banaketaren planteamentua ulertu dutelako» adierazi zuen Aizek.

PSE-PSOErekin ezin izan dela akordioa lortu esan zuen EAJko alkateak «udalerritik kanpoko banaketa egitea nahi zutelako udalerritean» azaldu zuen. Erantzukizun zuzenik ez dute izango beraz sozialistek, baina gobernu komisiotan parte hartuko dute.

HBri udal lanetan parte hartzen ez utzi izanaz, «Ez da HB baztertzeko, udal komisiotan egoteko aukera duelako, baina botorik gabe» esan zuen Toño Aizek. «HBk terrorismoaren pean egoteari uzten ez badio eta joko demokratikoa onartzen ez badu, ezingo du udalean sartu» gaineratu zuen.

Kongresuko Mahaiak atzera botako ditu HBren alegazioak

MADRIL

Espainiako Kongresuko Mahaiak atzera botako ditu gaur Herri Batasunak aurkezturiko alegazioak eta dirulaguntzak urte betez kentzeko ekainaren 11n hartu zuen erabakia finko egingo du.

Mahaikide batek Efe agentziari jakin erazi dioenez, HBri dirulaguntzak kentzeko erabakia baieztatzeko irizpidea HBko diputatuek argudio «juridikoak edo teknikoak» ez erabiltzea izan da. Aitzitik, Madrileko Kongresuko Mahaiaren ustez, Itziar

Aizpurua, Jon Idigoras eta Rafa Diez diputatuek aurkezturiko argudioak «politikoak» dira.

Eskubide ekonomikoak bertan behera uzteko erabakiari aurkeztutako alegazioetan HBko diputatuek erabakia baliogabetzea eskatzen zuten, «diputatu gisa bere lana egiten jarraitzen dutelako».

«Noiz ulertuko duzue —argudiatu zuten— lan eta bizitza parlamentarioa ez dela bakarrik joan, aulkietan loak hartu, tabernan kopak hartu eta botoa emateko orduan noizbehinka giltzari buelta bat ematea».

Segurtasun neurri bereziak hartu dituzte Madrileko komisaldegietan

MADRIL

Poliziak segurtasun neurri bereziak jarri ditu martxan Madrileko komisaldegietan. Babespen neurri berezi hauek, batez ere, bonba-autoa sistemaren bidez erasokorrek diren komisaldegietan jarri dira.

Polizi egoitzaetatik bat Carabanchelako komisaldegia da. Poliziaren eraikuntzara daraman kalezati bat moztu da, aldapa bonba-auto bat jaurtizteko erabil zitekeelakoan.

Bonba-auto batek komisaldegietan aurrea jo ez dezan lapurtutako autoekin parapeto bat egin dute.

Segurtasuna areagotu duten komisaldegietan inguruan trafikoko gutxi eta aldapa dutenak dira, polizi iturriek Efe albiste agentziari jakin erazi diotenez, faktore hauek errazten bait dute bonba-autoaren sistemaren erabilera. Vic-ekoaren ostean, Polizi arduradunek zentruen segurtasun neurriak berrituz dituzte eta autobabesteko aholkuak gogorarazi dute.